

Jangela: maiatzeko menua

Hone hemen maiatzean jangelako bazkaldarrek izango duten [menua](#) eta baita [menu berezia](#) behar duten bazkaldarrena ere.



Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza ohituretan

Udarregi Ikastolak, Usurbilgo Udalak eta UEMAK **familiei zuzendutako tailerra** antolatu dugu: *Nola eragin gure seme-alaben hizkuntza-ohituretan?*

Saioa **maiatzaren 7an, osteguna**, izango da **16:00etatik 17:30era** Udarregi Ikastolako **Agerialde eraikineko 3. solairuan**, eta bertara gonbidatuta zaude. [Hemen informazio osoa](#)



Udarregitarron hizkuntzak

Udarregi ikastola osatzen duzuenon familietako hizkuntzei buruzko galdetegi bat erantzun zenuten otsailean. Datu haiekin, besteak beste, gure komunitatea osatzen duten hizkuntza aniztasunaz hobeto jabetu gara eta halaxe adierazi dugu "Udarregitarron hizkuntzak" izeneko zuhaitzean: euskaraz gain beste 15 hizkuntza ezberdin batu ditugu!

HH eta LH1eko ikasleen laguntzarekin egindako zuhaitza ikastolako atarian kokatu dugu.

Euskararen xirimiriak aberastu ditzala gainontzeko hizkuntzak ere.




Pantailekin harremana

Ikasleek ordenagailuekin eta pantailekin duten harremana hobeto ezagutzeko, eta zuen iritzia jasotzeko helburuarekin, honako [galdetegia](#) betetzea eskertuko genizueke **apirilaren 30a** baino lehen.

Zuen iritzia funtsezkoa da ikastolaren eta etxearen arteko bidea elkarrekin adostu eta hobetzeko.

Erantzunak anonimoak izango dira.

Eskerrik asko zuen laguntzagatik eta parte-hartzeagatik!



Piztu plaza 2026 Arrasate

Apirilaren 25ean, Arrasaten *Piztu Plaza 2026* jaialdia egingo da (10:00-19:00). Euskal Herriko Batxilergoko 1. mailako eta Lizeoko ikasleek antolatuta, egun osoan zehar, herriko hainbat espaziotan antzerkia, musika, dantza eta bestelako emanaldi artistikoak eskainiko dira. [Horma-irudia](#)



Helburuak:

- Pertsona ereduaren «EUSKALDUNA» ezaugarria sakontzea.
- Euskal Herriko gazteen artean euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua sustatzea.
- Hizkuntzarekiko eta euskal kulturarekiko jarrera aktiboa sustatzea.
- Gazteak euskal kulturgintzan sortzaile izateko baldintzak sortzea.
- Euskal Herriko ikasleen elkar ezagutza eta saretzea sustatzea.
- Euskal kulturaren sorkuntzaren sustapenean ikastolen ekarpena bideratzea.
- Euskarari, euskal kulturgintzari eta Euskal Herriari egiten zaion ekarpenean sakontzen jarraitzea eta jendartearen begietara ikusgarriago egitea.

Izena eman duten ikastolak eta emanaldiak:

- Aranzadi (Bergara): Antzerkia.
- Gaztelupe (Arrasate): Girotze orokorra eta aurkezle lanak.

- Almen (Arrasate): Girotze orokorra eta aurkezle lanak.
- Etxepare (Baiona): Antzerkia eta dantza.
- Ander Deuna (Sopela): Musika kontzertua.
- Ikasberri (Azpeitia): elektrotxaranga.

Familia-plana

Maiatzaren 3an, igandea, ospatuko den Andatza egunerako familia-plan baterako gonbitarekin gatoz Zirimarako hezitzaileak. Deialdia irekia da, hau da, herriko edozein familiak har dezake parte.



Goizeko 9:30ean elkartuko gara San Estebango plazan denok batera igotzeko Andatzara.

Bertan, Ikastolek urtero antolatzen duten Kilometroak festaren 50. urteurrena dela eta, **50 urte 50 tontor** ekimenarekin bat eginez, aterako dugun argazkian parte hartzera gonbidatzen zaituztegu.

Animatu parte hartzera!

Usurbilgo udalaren ekintza-eskaintza

Udajolas 2026

Noua Elkarte eta Usurbilgo Udalaren artean antolatutako Udajolas udalekuetan izena emateko epea **apirilaren 27ra bitarte** izango da HH 3tik LH 6ra bitarteko haurrei zuzendutako ekintza da. Hona hemen [informazio orria](#)

noua



Usurbilgo Udala

Kirol jarduerak 2026

Ariketa fisikoa sustatzeko helburuz, Usurbilgo Udalak aretoko jarduerak eskainiko ditu uztailean haur, gazte zein helduentzat. Aurten, gainera, **skate ikastaroak** izango dira berrikuntza nagusi.

- **Izen-emateko epea:** apirilaren 16tik 27ra bitartean (biak barne).
- **Jarduerak:** uztailearen 1etik 30era.

Informazio gehiago nahi baduzu, deitu edo idatzi guregana: 943372498 edo kirola@usurbil.eus. Hemen bi ekintza hauen [horma-irudia](#)

Udal-dirulaguntzak

Usurbilgo kirol-saileko dirulaguntzen artean, eskolaz kanpoko kirol jarduerak laguntzeko dirulaguntza argitaratu da (oinarriak <https://egoitza.gipuzkoa.eus/gao-bog/castell/bog/2026/02/12/c2600473.pdf> (4. lerroa))



Usurbilgo Udala

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

— Klub/erakundearen ziurtagiri zigilatua (izena eman duela eta zenbat ordaindu duen egiaztatzen duena)

— [2.a eranskin](#) eta [2.f eranskin](#). Honekin batera dagokion dokumentazioa

Dirulaguntza horretako lehenengo **eskaera-epaia 2026ko apirilaren 30ean** amaitzen da. Bigarren epea udazkenean irekiko da.

Ipuin kontaketa

Apirilaren 28an, asteartearekin, 18:00etan, Sutegi Liburutegian, IPUIN KONTAKETA saioa Ixabel Agirresarobe usurbildarraren eskutik. Familia osoarentzako moduko saioa izango da; hori bai, 3 urtetik beherakoek heldu batek lagunduta etorri beharko dute.

Iraupena: 45 minutu. [Horma-irudia](#)



Gure haurrak ere badira” ekimena, azken bultzadan

Pasa den urrian abiatu zen *Gure haurrak ere badira* dinamika Euskal Herriko ikastetxe eta herri askotara zabaldu da, ehundaka ekimen eta mobilizazioekin. Bilboko manifestazio jendetsuak eta kamiseten salmentak arrakasta handia izan dute, eta guztira 66.000 euro bildu dira, jada Palestinara bideratu direnak UNRWA eta Paz con Dignidad erakundeen bidez.

Oraindik kamiseta batzuk eskuragarri daude eta antolatzaileek azken ahalegin bat egiteko deia egin dute: erosi eta mezua zabaltzea, elkartasun olatuari jarraipena emateko.

Informazio gehiago eta erosketa: <https://shop.serigrafia.eus/gurehaurrak/eu/>

Genozidioa gelditu!



HAUR HEZKUNTZA

Zorriak

HH 4ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



LEHEN HEZKUNTZA

LH1 eta LH2 irteera Arotz-Eneara

Datorren ekainaren 10-11n Etxarri-Larraun herrian dagoen Arotz-Enea baserrira joango gara gaua pasatzera LH 1 eta 2kook.

Bertako egonaldiaren kostua 65€koa izango da. Autobusaren kostua joango direla baieztatzen duten ikasleen artean kalkulatu da, irteera honetara joatea hautazkoa baita.

Hori dela eta, **apirilaren 30a baino lehen** zuen seme-alaba **irteerara joango den ala ez** tutoreari adierazteko eskatu nahi dizuegu.

Datu hauen arabera, kobrantzaren nondik norakoak aurrerago jakinaraziko dizkizuegu.



Zorriak

LH 1 eta LH 2ko ikasle batzuegan zorriak sumatu ditugu.

Norberak bere seme/alabarekin egoera horretan ohikoak diren higie-neurriak hartzea eskatu nahi dizuegu.

NEURRI HAUEK ERAGINKORRAGOAK IZAN DAITEZEN SAIATU DENOK ASTEBURU HONETAN EGITEN TRATAMENDUA



Ikastola eguneko bazkaria antolatzeako bilera-deialdia

Ikastola Eguneko bazkariko antolaketarako bilera-deialdia Ikastola Eguneko bazkaria antolatzeako bilera egingo da **apirilaren 27an**. Azken urteetan, bazkariaren antolaketaz, **LH5 eta LH6ko gurasoak** arduratzen dira, beraz, maila horietako gurasoei egiten zaie bilerarako deialdia. Bilera, **Agerialde eraikineko hirugarren solairuan izango da arratsaldeko 17:00etan**.

Iazko LH5eko arduradunak bertaratzea eskertuko litzateke.



DBH1-era pausua


LH6ko familiei zuzendutako bilera bat izango da datorren ostegunean, apirilak 30ean. Bertan, etapa berrirako pausuaren inguruan hitz egiteko aukera izango duzue DBHko ikasketa-buruarekin: etaparen berri izan, galderak egin, ardurak partekatu eta, batez ere, hautazko arloen inguruko informazioa jasotzeko tarte hartuko da. Xuxurlari zerbitzua egongo da.

DBHra pasuari buruzko bilera:

Data: apirilaren 30a

Ordua: 17:00

Lekua: Udarregi eraikina, 4B gela (idazkaritzaren ondoan)



BIGARREN HEZKUNTZA

Irteera DBH4

Datorren **astelehenean** DBH 4ko ikasleak Kataluniara joango dira ikasturte bukaerako irteeran. Hiru eguneko egonaldian, Bartzelona ezagutuko dute, uretako ekintzak egingo dituzte Tarragonako kostaldean eta PortAventura egun pasa ederra egingo dute.

